



Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 21a / 585. zenbakia




KATEA **25 URTE BERGARAN**

Bultzatzaileak omendu zituzten egubakoitzean



'PANTI' OREGI: OMENALDIA ZAPATUAN/5 • KULTURA: FRAN ITURBERI ELKARRIZKETA/15



ILUNTZEAN

Jose Maria Setien solaskide



Ikustekoa!

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz

Eguenean, maiatzaren 27an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki

ATREBENTZIA EZPADA / Txotxongilo Mostra hasi da: baduzu emanaldietara joateko asmorik?



ISMAEL OTERO
32 urte

Ez naiz joango denborarik ez daukadalako. Gustukoa ditut horrelako ikuskizunak, eta lehen, denbora nuenean joaten nintzen. Orain ere astia izango banu joango nintzateke.



DOLORES HEIS
55 urte

Ez, ez daukat zaletasunik antzerkira eta txotxongiloak ikustera joateko. Bestelako ikuskizunak balira agian joango nintzateke. Ni Andaluziakoa naiz, eta agian hango zerbait.



CARLOS UGARTE
50 urte

Ez dut uste joango naizenik. Ez dut sekula txotxongilo emanaldirik ikusi eta ez dakit gustuko dudan edo ez. Parean, kalean, tokatuz gero ikusiko dut agian, baina bestela ez.



PATRICIA ABANDO
38 urte

Bai, joango naiz txotxongilo emanaldiren batera. Gustuko ditut txotxongiloak eta baita antzerkia ere. Orain dela bi urte ere izan nintzen saioaren batean, eta daudenetan joaten naiz.



JON RODRIGUEZ
33 urte

Bai, aurten badaukat egunen baten joateko asmoa. Orain arte kalean ikusi izan ditut. Txotxongiloak ikustera baino sarriago joaten naiz antzerki saioetara, baina biak ditut gustuko.



GARBIÑE MARTINEZ
28 urte

Ez, ez gustatzen ez zaidalako, baina ez dut sekula ohi-turarik izan txotxongilo mostrako emanaldietara joateko. Antzerki saioetara gehiago joaten naiz, baina txotxongiloak ikustera ez.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK EZINDUEN APARKALEKUAK Herritar bat etorri zaigu esanez, ezinduen aparkalekuan autoa lagatzen dutela ezintasunik ez duten auto gidari batzuek, edo behintzat inolako agiririk ez dutela jartzen jendearen bistan. Irakurle honen esanetan, gidari gehienek izaten dituzte aparkatzeko arazoak, baina ezinduendako espresuki gordeta dauden lekuak errespetatzea ez legoke gaizki. //A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /6

Bergara Aurrera

Bergara Aurrera herri plataformak udaletxean jasaten duten bazterketa salatu du.

KIROLA /10

Igor Gordobil, BKEra

Igor Gordobil izango da Bergara KEko futbol talde nagusiko entrenatzailea hurrengo denboraldian.

KULTURA /15

Fran Iturberi elkarrizketa

Fran Iturbe gitarra jole bergararrak Elkano Browning Cream taldearen berri eman digu.

ASTEKODATUA

31

GRADU IZAN GENITUEN MARTITZENEAN

Egun gutxitan termometroak dezente gora egin du, derrepentean udaren etorrera iragarritz. Luis Mari Agirreren datuen arabera, 31°C izan genituen martitzeneko tenperatura maximoa.

BESTE EKESANA

Trena kendu zigutene-tik Debagoiena desastre bat da barruko garraio sareari dagokionez.

Ez daukagu zerbitzurik eta tranbiaren zain gaude. Oso garrantzitsua izango da, baina herritarrak erabiltzera bultzatu beharko dira. Gazteek ez dute autoa beste garraio biderik izan; ezin izan ditugu zerbitzu publikoak erabiltzera ohitu. Auto propioak eta mantentzearekin nahikoa egiten duen autobus zerbitzu nahiko eskasa baino ez daukagu. Tranbiarekin 18 minututan Arrasatera iritsi ahal izango gara eta egunkaria irakurriz gainera. Baina tranbiak ez du barruko mugimendu arazoa %100ean konponduko, auzoetara joan ahal izateko irtenbideren bat aurkitu beharko da"
VICTORIANO GALLASTEGI / Alkatea
'El Mundo' / 04-05-16

BERAIEKDIÑO / Mikel Elkoroberezibar



Torturak

Iraken ikusi berri ditugun irudiek, EEBBtako marineek atxilotutako irakiarrak jipoituz, bortxatuz eta torturatuz munduari buelta eman diote. Iritzi emaile guztiak jarri dira ekintza horien aurka. ZPren mutilek gogor salatu dute EEBBkoen jokabidea, Gasteizko gobernukoek ere kondena argi eta garbia azaldu eta horrelakoak berriz gerta ez daitezzen neurriak hartzeko eskatu dute.

USAko agintariak hemendik aurrera tratua hobetzeko atxilotuei kaputxa eta musika altua ez dietela jarriko agindu dute. USAkoek behintzat torturatu dutela onartzeaz gain, hartu dute neurriren bat. Hala ere, onena euren etxetara joan eta mundua bakean lagatzea izango litzateke.

Madrilgo eta Gasteizko gobernuek tortura ez dela existitzen esateaz gain, ez dute neurririk hartzen. Are gehiago gero eta legedi zorrotzagoak ari

dira bultzatzen, inkomunikazioak luzatuz eta indar polizialei nahi dutena egiteko baime-na emanez. Ez dago Irakeraino joan beharrik torturaren testigantzak jasotzeko. Kalera irteten bagara Espainiako zein Euskal Autonomia Erkidegoko indar polizialek

"Ez dago Irakeraino joan beharrik torturaren testigantzak jasotzeko"

emandako tratua txarren berri jasotzeko hainbat lagun topa ditzakegu.

Oraindik gogoan daukatz Unai Romano gasteiztarren aurpegi handitu eta ubeldua edo Martxelo Otamendiren adierazpenak edo "Mur"en testigantza

Guardia Zibilaren eskuetatik pasa ondoren.

Irakekoaren aurrean Gasteizko gobernukideek ahoa zabaltzeaz gain, ezer gutxi egin dezakete, baina EAEn euren da Lege Antiterrorista aplikatzeko ardura. Benetan guztion giza eskubideen alde badaude Amnistia Internazionalaren gomendioei jarraituz lege hori alde batera utzi beharko lukete.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 21**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ZAPATUA, 22**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- DOMEKA, 23**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 24**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 25**
MOZOS, Iparragirre 2..... 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 26**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- EGUENA, 27**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda)..... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46
- Ertzaintza..... 943 53 47 20
- Osasun etxea..... 943 76 24 40
- Asepeyo..... 943 76 16 43
- Pakea..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
- Odol emalleak..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
- Igerilekuak..... 943 76 20 51
- Kultura etxea..... 943 77 91 58
- Liburutegia..... 943 77 91 62
- Kirroldegia..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia..... 943 76 14 92
- Erregistroa..... 943 76 13 15
- Jardun..... 943 76 36 61
- Idolaz..... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
- Postetxea..... 943 76 26 85
- Bedelkar..... 943 76 04 68
- Akulu AEK..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00. |
| Santa Marina
Domekak:
10:30, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOEN AFARIA
1942an jaiotako enafaria ekainaren 12an Azpeitxi jaiatzen, 21:00etan. Aurretik meza izango da Santa Marinan, 19:00etan. Izenematea Mizpildi okindegian, Edel tapiz dendan edo Azpeitxi jaiatzen, ekainaren 8ra arte.

1966AN JAIOTAKOEN AFARIA
1966an jaiotako enafaria ekainaren 19an Sirimiri jaiatzen. Izenematea (10 euro) Ariznoa tabernan.

ODOL ATERATZEA
Hurrengo odol ateratzea eguaztenean, maiatzaren 26an, izango da, Seminarioan, 18:30ean hasita.

MUSIKA ESKOLA
Musika Eskolan matrikula egiteko epea ekainera arte izango da zabalik. Argibideak 943 76 57 80 telefonoan.

INFORMATIKA IKASTAROAK
KZguneak herritar guztien dako informatika ikastarok eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

JARDUNEN AGENDA

IPUIN LEHIAKETA
Debagunek ipuin barregarrien lehiaketa deitu du. Lehen saria 450 euro da, eta Debagoieneko onenak 150 euro jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 28ra arte izango da zabalik. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

KANTU LIBURUXKAK
Jardunek euskal kantuen liburuxkak jarri ditu salgai. Liburuxkak Pol-Polen, Kortazarren edo Jarduneko bulegoan eskuratu daitezke, 2 euroren truke.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jaiatzea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN


Jende mordoa Agorrosinen Reala gertutik ikusteko

Realak entrenamendua egin zuen Bergaran 1994ko maiatzaren 25ean. Jende ugari elkartu zen Agorrosinen, jokalaria gertutik ikusteko. Sasoi hartan Toshack zen Realeko entrenatzailea, baina ez zen etorri. Kodro, Carlos Xavierrek, Alkizak eta abarrek autografo mordoa sinatu zituzten.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

“Lotsakizun”



Lotsatzeko motiboa.
—Familixandako lotsakizuna da ori.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 15	6 °C
MAXIMOA Martitzena, 18	31 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 12	15 °C	11 °C	0,4 l/m²
Eguena, 13	16 °C	12 °C	0,3 l/m²
Egubakoitza, 14	18 °C	9 °C	- l/m²
Zapatua, 15	21 °C	6 °C	- l/m²
Domeka, 16	25 °C	7 °C	- l/m²
Astelehena, 17	26 °C	7 °C	- l/m²
Martitzena, 18	31 °C	9 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKOA

OLINPIADAK BIHAR, SEMINARIOAN

Jardun euskara elkarteak antolatuta, lehen hezkuntzako 120 neska-mutiko inguruk dihardute IV. Olinpiadetan. Bihar, zapatua, hockey partiduak jokatuko dira Seminarioan, 16:00etatik aurrera. Hamahiru talde dira lehiatzen eta sailkapeneko aurreneko tokietan Mix 2 taldea (10 punturekin), UpThe Iron's (9 puntu), Kalimeroak (3 puntu), Hamar Hamaika (3), Iratxoak (2) eta Mórroxtotarrak (2) ditugu oraingoz.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

AZPIEGITURAK/ Agorrosingo kirolgunea eta Seminarioko auditorioa bultzatzea da Udalaren asmoa

Diputazioak 4,3 milioi euroko dirulaguntza emango dio Udalari, hainbat proiektutarako

EDU MENDIBIL

Gipuzkoako Diputazioak 4.350.000 euroko dirulaguntza emango dio Bergarako Udalari, hainbat proiektu aurrera eramateko. Seminarioko auditoriora eta Agorrosingo kirolgune berrira bideratuko du Udalak dirulaguntzaren zatirik handiena.

Joan den egunean aurkeztu zuen Diputazioak 2004-2007 urte bitarterako Aparteko Inbertsio Planaren Proiektua. Horren arabera, Bergarako Udalak 4.350.000 euroko dirulaguntza jasoko du. Guztira, Debagoienara 10.430.500 euro bideratuko ditu Diputazioak. Debagoieneko herrien artean, Bergara da dirulaguntza handiena jasoko duena, Elgeta (2.320.000 euro), Arrasate (2.200.000) eta Antzuolaren (600.000) aurretik hain zuzen ere. Aparteko Inbertsio Planaren Proiektuan, 2007 urte bitartean, 140 milioi euro aurreikusten ditu Gipuzkoako Diputazioak.

AGORROSINGO KIROLGUNEA

Esan bezala, 2004-2007 epe bitarterako, Agorrosingo kirolgunea eta Seminarioko auditorioa dira Bergarako Udalaren proiektu izarrak. Diputazioak emandako dirulaguntzatik 2.100.000 euro kirolgunea bideratuko dira. Kirolguneko lanak behin eta berriz atzeratzen dira. Hasiara baten, 2002ko udazkenean hastekoak



Udalaren asmoa Seminarioko auditorioa egitea da.

ziren baina lanak ez dira hasi oraindik. Udalak dirulaguntza handiagoa lortzea espero zuen, proiektu osoaren aurrekontua 10.704.218 euro baita. Lehen fasearen aurrekontua, berriz, 6.915.894 euro da.

SEMINARIOAREN JABEGOA

Bestalde, Seminarioko auditorio lanekin hasteko, aurretik eraikuntzaren jabegoa negoziatu beharko du Udalak Espainiako gobernuarekin. Diputazioarengatik, printzipioz, 1.750.000 euro

jasoko ditu Udalak. Bien bitartean, Zabalotegiko aretoa berritze-proiektua baztertu egin du Udalak oraingoz. Horren ordez, Goiko Estazioko eraikina berritze-proiektuari lehentasuna ematea erabaki dute.

LABUR

Bergara Hiria: lanak aurkezteko epea ekainaren 2ra arte

Bergara Hiria argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea ekainaren 2ra arte izango da zabalik. Argazkiak zuri-beltzean zein koloretan egin daitezke. Argibideak 943 76 30 90 telefono zenbakian.

Mizpirualdek kalitate ziurtagiria eskuratu berri du

Mizpirualde Egoitzak ISO 9001-2000 ziurtagiria eskuratu berri du. Azken hilabeteotan Oteic aholkulari enpresarekin elkarlanean izan da Mizpirualdeko lantaldea.

Mizpirualdeko arduradunek datorren ekainaren 7an jasoko dute aipatutako ziurtagiria, DNV erakundearen eskutik.

Biolin emanaldia gaur eta magia bihar Zabalotegin

Musika Eskolako Amaia Artzamendi irakaslearen ikasleek biolin emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 19:00etan.

Bestalde, Bergarako Emakume Kultur Elkarteak antolatuta, Barruti magoaren saioa izango da bihar, zapatua, Zabalotegiko aretoan, 16:30ean.

Xabier Oregi 'Panti'-ri omenaldia bihar, zapatua

E.M.

Bihar, zapatua, Xabier Oregi *Panti* preso ohiari omenaldia egingo zaio bihar, zapatua. Ekitaldi politikoa izango da 20:00etan San Martin plazan eta jarraian, eguraldiak laguntzen badu behinik behin, herri afaria egingo dute plazan bertan. Txartelak Arrano

eta Pol-Pol tabernetan daude salgai. Egunotan Donostiako Miramar jauregian presoan gaineko nazioarteko foroan diharduten hainbat ordezkari gonbidatu dituzte zapatuko ekitaldietara.

Xabier Oregi *Panti*-k 22 urte eman ditu herritik kanpo, azken 17 urteak kartzelan. Joan den maiatzaren 8an utzi zuten aske.



AITOR LIZARRALDE

Panti-ri maiatzaren 8an egin zitzaion ongietorriko irudi bat.



Felix Ayalak irabazi du Abdon Juaristi margo lehiaketa

Bigarren urtez jarraian Felix Ayala arrasatearrak irabazi du Zezen Zaleak taldeak deitutako Abdon Juaristi margo lehiaketa. Oraingoan zezen taldea Espoiloiko kioskoaren ondoan kokatu du artista arrasatearrak. Ayalak 1.000 euro eta plaka oroigarria eskuratuko ditu. Sari banaketa gaur, egubakoitza, egingo da kultura etxean, 20:00etan. Lanak bertan daude ikusgai, domekara arte.

POLITIKA/ Asteleheneko udalbatzarrean mozioa aurkeztuko dute

Jasaten duten bazterketa salatu du Bergara Aurrerak

E.M.

Udaletxean jasaten duten bazterketa salatu zuen Bergara Aurrerak eguaztenean, prentsa aurrean. Azken udal hauteskundeetako emaitzen arabera plataformari dagokion ordezkari politiko aldarrikatuko dute asteleheneko udalbatzarrean.

Azken udal hauteskundeetako lehen urteurrenean, udaletxean jasaten duten bazterketa salatu du Bergara Aurrerak. Hori dela eta, mozioa aurkeztuko dute asteleheneko udalbatzarrean. Besteak beste, zera eskatuko dute: "Iazko udal hauteskundeetan Madrilek gure herriaren eta herritarren eskubide politikoak urratzeko egindako saiakera salatzea". Era berean, gure herriaren etorkizuna erabakitzea euskal herritar orori dago-kigula aldarrikatzen dute: "Benetako demokrazia lortzeko gizarte eragile eta instituzioen arteko elkarrizketa eta konponketarako konpromisoa beharrezkoa dela diote Bergara




OIHANA ELORZA

Bergara Aurrerak udalean ordezkari izatea aldarrikatu zuen eguaztenean.

Aurrerakoek. BA herri plata-forma, beste edozein alderdi politiko bezala, eragile eta mintzaki-kide politiko izatea eskatzen dugu, eta iaz BAK lortutako emaitzak errespetatu eta onartzeko konpromisoa hartzeko eskatzen diogu udalari".

ELKARRETARATZEA MARTITZENEAN
Martitzenean, maiatzaren 25ean, azken udal hauteskundeak egin zirenetik urtebete betetzen denez, BAK deitutako elkarretaratzea izango da San Martin plazan, arratsaldeko 19:00etan.



Irakeko egoera aztergai

Bergarako Komite Internazionalistak taldeak gonbidatuta, Iraken brigadista lanetan jardundako Imanol Telleriak eta ETBrako berriemaile ibili zen Joseba Iriondok Irakeko egoera aztergai izan zuten astelehenean, kultur etxean. Berrogei lagun inguru elkartu ziren hitzaldian. Azkenaldian Irakeko irudien gainean, bi hizlari zera ekarri zuten gogora, egunero torturatzen eta hiltzen dutela Iraken eta egoerak hobera behar txarrera egin dela. ARGAZKIA: OIHANA ELORZA.

LABUR

Koldo Pereira EAJko Gipuzkoa Buru Batzarreko kide izendatu zuten zapatuan

Koldo Pereira Bergarako Udaleko zinegotzi ohia Gipuzkoa Buru Batzarreko kide izendatu berri dute. EAJko Gipuzkoako Lurralde Batzarrek zapatuan hautatu zituen GBB berria osatuko duten hamabost alderdi kideak. Joseba Egibar izango da GBBko lehendakaria.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea, ekainaren 30era arte

Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea ekainaren 30era arte izango da zabalik. Epea amaitu ondoren, errekararekin egin beharko da ordainketa. Erreziboa helbideratu gabe dituzten zergadunak, maiatzaren 31rako ordainketa egiteko agiria jaso ezean, udaletxetik pasa daitezke.

Pazkoetako herri bazkarirako txartelak salgai Pol-Polen, Kortazarren eta Arranon

Xamatx dantza taldeak eta Jardun elkarteak antolatuta, Pazkoetako martitzenean herri bazkaria izango da San Martin plazan, 14:30ean. Aurretik, herri txikiteoa izango da, 13:00etan Pol-Politik hasita. Herri bazkarirako txartelak 13 euroren truke salgai daude Pol-Pol, Kortazar eta Arrano tabernetan.

Ricardo Azkargortaren margo erakusketa Arrasateko Arregi arte galerian

Ricardo Azkargorta bergarar margolariaren erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Arrasateko Arregi arte galerian (Maalako Errebala 8). Erakusketa ekainaren 18ra arte egongo da ikusgai, lan orduetan. *Itxurak* izenburupean, Azkargortak paisaiaren gaineko hainbat lan zintzilikatu ditu Arrasateko erakusketan.

Asentzio jaiak aste bukaeran Zubiaurren eta Martokon

E.M.

Asentzio jaiak ospatuko dira aste bukaeran Zubiaurren eta Martokon. Jaiak atzo, eguna, hasi ziren eta domekara bitartean hainbat ekitaldi prestatu ditu auzoko jai batzordeak.

Bihar, zapatua, neska-mutikoei zuzendutako marrazki lehiaketa izango da 09:00etan Martokon eta 11:00etan salda eta txorizoa banatuko dira Zubiaurren. Arratsaldean, 16:00etan, mus txapelketa jokatu da Kabia tabernan eta ondoren haur-jolasak, dantzariak eta buruhandiak izango dira. Marrazki lehiaketaren sari banaketa 20:00etan egingo

dute. Gauean, berriz, Ator taldearekin dantzaldia egongo da, 23:00etatik aurrera.

Domekan, maiatzaren 23an, Udal Txistulari Bandaren kalejira izango da 09:00etan eta jarraian Beti Alai elkarteak antolatutako txokolate jana. Bestalde, Asentzio eguna ospatzeko meza egongo da Aritzetako San Migelen, 11:00etan. Hara igotzeko ibilaldia 10:30ean hasiko da, Txarrantxa eta Lasa jatetxeen ondotik.

Arratsaldean, 16:00etatik aurrera, tute txapelketa jokatu da Txarrantxa jatetxean eta, jai bukaera emateko, azken txupinazoa jaurtiko dute iluntze aldera.

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

LANA/ Alkartu-Naik berebiziko garrantzia izan zuen lantegiaren sorreran, 1979an

Katea lantegiaren bultzatzaileak omendu zituzten egubakoitzean, 25. urteurrenean

EDU MENDIBIL

Bergarako Katea lantegiaren 25. urteurrena zela-eta, 1979an tailerra aurrera ateratzeko lanetan jardun zuten Alkartu-Naiko kideak omendu zituzten joan zen egubakoitzean. Gaur egun 90 langile dira San Juango lantegian.

Nahiz eta hilabete batzuk lehenago lanean hasi, Debagoieneko Elbarri-Lan (gaurko Katea) lantegia 1979ko urriaren 27an inauguratu zuten Seminarioan, Elbarri-Lan izenarekin hain zuzen. Hasiera hartan bi ziren Elbarri-Lan kooperatibaren helburu nagusiak: batetik, gutxituen gizarteratzea bultzatzea eta, bestetik, lan aukera eskaintzea aipatutako kolektiboari. Esandako moduan, Alkartu-Nain biltzen ziren herriko elkarteek berebiziko garrantzia izan zuten proiektua aurrera ateratzeko orduan.

SAN JUANGO TAILERRA IKUSTEN

Alkartu-Nain jardundako hainbat lagun Kateak gaur egun San Juanen duen tailerra bisitatzeko gonbidatu zituzten egubakoitzean. Han izan ziren Juanjo Arrieta, Iñaki Azkarate, Manolo Cainzos, Jesus Mari Eguren, Jose Luis Elkoro, Fernando Etxeberria, Juan Mari Errasti, Antonio Ibarra, Juan Irigoien eta Fernando Lasa. Ignacio Etxeberriak, Leonardo Laskurainek eta Ignacio Madinabeitiak, berriz, ez zuten omenaldian izaterik izan. Beraiek hasitako lanak hazkunde nabaria izan du eta omendutakoak harri eta zur geratu ziren gaurko Kateako instalazioak ikustean. Lantegia bisitatu ondoren, Kateako ordezkariekin eta langile talde batekin elkartu ziren, sorrerako kontuak eta gaur egungo lan egoera komentatzeko.

GIZA EKONOMIA OINARRI

Jesus Laguardia Kateako zuzendariak eskerrak eman zizkien guztiei eta Katearen hazkundearen berri eman zuen. Kateak 19 tailer dauzka Gipuzkoan gaur egun eta 950 langilek dihardute. Laguardiak azpimarratu zuenez, giza ekonomian oinarritutako enpresa da Katea eta langileak dira enpresaren jabe, hainbat erakundeetatik (Diputazioa tartean) dirulaguntza jasotzen badute ere. Honekin lotuta, lan hazkundeak langileen baldintzen hobekuntzan eragina duela aipatu zuen. Lan merkatuan inork ez diela ezer oparitzen esan zuen Laguardiak: "Egiten dugunagatik eta lan egiteko moduagatik kontratatzen gaituzte, ez gutxituen enpresa garelarako. Guregan konfiantza dutenek badakite kalitatea zaintzen dugula, hitzeko enpresa



Argazkian, Alkartu-Naiko kideak Kateako langile talde batekin, San Juango tailerrera egindako bisitaldian.

*1979tik hona,
hamabi langile
izatetik 90 langile
izatera pasatu da
Bergarako Katea*

*Gutxitu fisikoen
kolektiboari lanean
hasteko aukera
ematea da Katearen
helburuetako bat*

garela. Beste edozein enpresak izan ditzakeen zailtasunak ditugu eta lehian borrokatzeko gure enpresa garai berrietara egokitzea beharrezkoa da". Laguardiaren esanetan, "gutxitu fisiko askorendako lan munduan lehen urratsak emateko tokia bihurtu da Katea urte hauetan guztietan".

ALKARTU-NAIREN BULTZADA

Omendutakoen izenean, Jose Luis Elkoro hartu zuen hitza. Urrezko garaitzat jo zuen Katea sortu zuteneko hura, "sasoi hartan giza proiektu solidario asko aurrera atera zirelako herrian: Gureak, Aspace, Aitonak, Aransgi, UNED, ikastolak, Pol-Pol elkar-atea, anbulantzia ere jarri genituen



Pili Perez, Jose Luis Elkoro eta Manolo Sanchez, egubakoitzeko omenaldi ekitaldian.

herrian... Zentzu horretan, Bergarako herriak bidea ireki zion inguruko beste hainbat herriri, horrelako proiektuak martxan

jartzeko. Alkartu-Naik bultzada handia eman zion herriari zentzu askotan eta Oxirondo elkar-ateak eta Seminarioko aita domin-

gotarrek egin zuten lana nabarmentzekoa da. Udaletxea ere inplikatzeko lanarekin emaitza hor dago. Bestalde, Sabin Ugarte zena ere gogora ekarri nahi dut, lan handia egin baitzuen lehen aipatutako proiektu askotan".

Omendutako guztiek oparitxo bana jaso zuten egubakoitzeko ekitaldian, oroigarri modura. Era berean, Jose Luis Elkoro-ko plaka bat eman zien Manolo Sanchez San Juango lantegiko arduradunari eta Pili Perez idazkariari. Ondoren, bazkaria izan zuten Zumelaga jatetxean, lagun artean. Azken hogeita bost urteotako gorabeherak ekarri zituzten gogora mahai baten bueltan, giro ezin hobean. Aspaldiko lagunak berriro elkartzean, egun ahaztezinak izan zen guztiendako.

90 LANGILE BERGARAN

Orain dela 25 urte 12 langile ziren Seminarioko tailerrean. Orain, berriz, 90 lagun dira lanean San Juanen. Zirkuitu eta osagarri elektronikokoak egiten dituzte bertan, baita ontziratzeak eta mekanizazioak ere. Dagoeneko hamar langilek zilarrezko ezteiak bete dituzte enpresan. Hauek dira: Maribel Alonso, Maria Teresa Anton, Isabel Aranguren, Mari Karmen Azurmendi, Miguel Bellanco, Sara Estevez, Miguel Fernandez, Manoli Menor, Pili Perez, Manolo Sanchez. Zalantzarik gabe, beraiek dira Kateak egindako ibilbidearen lekuko onenak. Guztiei zorionak.



JUAN MARI ERRASTIRI OMENALDIA ATZEGI EGUNEAN

Atzegi eguna ospatu zuten domekan Bergaran. Gutxitu psikikoak eta haien senideak batuta, 150 lagun inguru elkartu ziren. Victoriano Gallastegi alkateak eta Arantzazu Amasorrain zinegotziak harrera egin zieten Debagoieneko Atzegiko kideei. Era berean, Atzegiko arduradunek Juan Mari Errasti omendu zuten, elkartearen alde egindako lan guztiagatik (ezkerreko argazkian, ezkerretik eskumara, Arantzazu

Amasorrain, Isabel Altelai eta Juan Mari Errasti senar-emazteak eta Jose Luis Zaldúa Atzegiko gerentea). Udaletxeko osoko bilkuren aretoan aureskua dantzatu zioten eta jarraian txapela eta oparitxo bat jaso zituen Errastik, oroigarri modura. Egunari bukaera ezin hobea emateko, herri bazkaria izan zen Zabalotegiko pilotalekuan. Ehun lagun inguru elkartu ziren han, lagun artean eta giro ederrean.



JOLASLEKUA ETA OLINPIADAK ABIAN, JARDUNEN ESKUTIK

Bosgarren urtez jarraian, Jardunek Jolasleku Ibiltaria programa abian jarri du. Bereziki umeak eta guraso eta zaintzaileak elkartzen diren herriko hainbat tokitan, askotariko ekitaldiak antolatzen dituzte: kantuak, jolasak, eta abar. Besteak beste, euskaraz jolas egiteko baliabideak eskaintzea eta aholkotasuna lantzea da Jardunen helburuetako bat. Aipatutako jarduerak, nagusiki, 6-12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta daude. Gaurko saioa Fraisko zurin izango da eta hurrengoa jaien ostean izango da, ekainaren 4an, Espoioan. Bestalde, Jardunek antolatutako IV. Olinpiadetan 13 talde ari dira lehian; Lehen Hezkuntzako 123 neska-mutiko, hain zuzen. Hurrengo saioa bihar, zapatua, izango da, Seminarioan, 16:00etan.

POL-POLEKOEN IBILALDIA

Pol-Poleko mendizale betanoek San Millan de la Cogolla eta Ezkarai bitarteko ibilaldia egin zuten domekan, maiatzaren 16an. Hamazazpi kilometroko ibilaldia izan zen, eta erritmo onean egin zuten Pol-Polekoek, lagun artean eta paisaiarekin gozatu. Juan Mari Sasigainek utzi digun argazkian, taldea ortu bat zeharkatzen ikus dezakezue; atzean, San Lorenzo mendia elurtuta ikusten da. 50 bat laguneko taldeak hartu zuen parte domekako ibilaldian. Hurrengo irteera, berriz, ekainaren 26an eta 27an egingo dute, Pirinioetara, Luchon eta Benasque artera, hain zuzen ere.



MINGAINARITIRAKA



Isabel
Egia

BIZI-LUR BELAR-DENDAKOAK

Iazko azaroan zabaldu zuten Bizi-Lur belar-denda, eta ordutik dihardu bertan lanean Isabelek. Bere ametsa, baina, bere enpresa edo negozioa jartzea da. Arrasatearra da Isabel eta enpresa ikasketak egin zituen.

Azkenaldian, badirudi boladan daudela produktu naturalak, dietetikoak eta sendabelarrak, ezta?

Bai; produktu biologikoek, batez ere, arrakasta handia dute jendearen artean. Dena dela, orain, uda datorrela eta, argaltzeko produktuen bila etortzen da jendea.

Ze eratako produktuak saltzen dituzue, zehazki?

Sendabelarrak, kandelak, aromaterapia produktuak, produktu biologikoak, dietetikoak...

Mediku asko azaldu da sendabelarrak erabiltzearen aurka...

Gaixotasun arinak sendatzeko oso egokiak dira guk saltzen ditugun produktuak; baina, zerbait larria izanez gero, medikuen tratamenduak jarraitu behar dira.

Zure etxean, zein sendabelar ez da sekula falta?

Kamamila, anisa, erregaliza...

Zure laneko gauzarik onena?

Goizean goiz jaiki beharrik ez daukadala; gainera, jendearen harremana izatea ere gustuko dut.

Eta txarrena?

Zapatuetan lan egin beharra eta ordutegia; egun osoa lanean pasatzen duzu, iluntzera arte, eta ez duzu ezer egiteko astirik.

Zela definituko zenuke zeure burua?

Lotsatia naiz, eta lasaia, gauzak datozen moduan hartzen ditut.

Gaur arratsaldean jai izango bazenu, eta egiten duen eguraldiarekin, zer egingo zenuke?

Udalara joango nintzateke, eguzkia hartzera.

Ze zaletasun daukazu?

Eskiatzea, mendian ibiltzea eta irakurtzea.

Mendi bat?

Udalaitz.

Liburu bat?

'El código Da Vinci', Dan Brown-ena.

Kolore bat?

Urdina.

Amets bat?

Neure negozioa jarri ahal izatea.

AINZANE IRIZAR

KANPOTARRAKBERGARAN

SHANE CURLEY

31 URTE / IRLANDARRA / ZAZPI URTE DARAMATZA BERGARAN BIZI IZATEN

“Euskaldunondako, irlandarrondako moduan, oso garrantzitsuak dira harreman sozialak”

AINZANE IRIZAR

Ingeleseko irakaslea da Shane. Irlandan bizi zenean ere lanbide horixe zeukan; Irlandara ingelesa ikastera joaten ziren kanpotarren irakaslea zen. Gero, Estatu Batuetan egon zen ikasten eta lanean.

Orain dela zazpi urte, berriz, Bergarara lanera etortzeko aukera izan zuen, eta halaxe egin zuen. Abenturara etorri zen: hemen sekula egon gabe zegoen, eta, gainera, ez zuen gaztelera ezagutzen, eta, zer esanik ez, euskara.

Espolon hizkuntza akademian jardun zuen lehenengo Shane-ek; gaur egun, berriz, Ikasi akademiako irakaslea da.

HERRIAN, GUSTURA

Oso gustura bizi da Shane Bergaran; horrelaxe azaldu digu:

“Gazteleraz ondo moldatzen naiz; laster, euskara ikasten hasteko asmoa daukat”

“Aurretik hiri handietan bizi izandakoa naiz; urte asko egin nituen hirietan bizi izaten, eta gustura hartu nuen herri txiki batera etortzea”.

Familiaren eta lagunaren hutsunea nabaritzen duen arren, hori ez da arazoa berarendako; izan ere, urtero hilabete batzuk hantxe pasatzen ditu. Hizkuntzak irakasteko agentzia bat dauka Irlandan, Galway inguruan, han-

goa da eta bera. “Irlandatik kanpora bizi diren beste irlandar batzuekin batera jarri nuen agentzia hori; udako hilabeteetan jende asko joaten da Irlandara ingelesa ikastera eta bidaiaria horiek antolatuta eta kudeatzen ditugu”, diosku Shane-ek. Momentu honetan lan horretan dihardu, Irlandara ingelesa ikastera joan nahi duen jendea topatzen, alegia.


IRLANDARREN ANTZERAKOAK

Euskaldunok eta irlandarrok gauza asko ei daukagu komunean: “Euskaldunondako oso garrantzitsuak dira harreman sozialak; irlandarrondako ere bai. Gu ez gara etxean geratzekoak”. Hala ere, txikiteoa ez zaio askorik gustatzen Shane-i; gehiago gustatzen zaizkio Irlandako pubetan egiten dituzten egonaldiak. Horrek harritu egin zuen hasieran: “Nik ez nuen ulertzen, kanpoan euria ziharduela, tabernan gustura egon besterik ez, eta zela ateratzen zen jendea tabernetatik, zer eta beste taberna batera joateko!”, azaldu digu Shane-ek barre artean.

Gainera, nahiz eta kanpotarren artean oso itxiak izatearen fama eduki, Shane-ek ez du uste hori horrela denik: “Nirekin oso jatorra da jendea eta ez dut izan batere arazorik harremanak egiteko; dena dela, nire lanak ere asko lagundu dit, irakaslea izanda, jende asko ezagutzeko aukera izan dut”.

Lagun horietan irakatsi diote gaztelera. Izan ere, esan bezala, etorri zenean ez zuen batere ulertzen. Orain, zazpi urte eta gero, oso ondo hitz egiten du. Euskara ikasteko asmorik ez duen galdetuta, zera erantzun digu: “Bai, laster hasteko asmoa daukat; orain arte, nahikoa lan eduki dut gaztelera ikasten, eta, denbora gutxirekin ibili naiz, gainera. Ia datorren ikasturtean edo hasten naizen euskaltegian”.

Gainera, azaldu digunaren arabera, oraingoz, behintzat, Bergaran bizi izaten jarraitzeko asmoa dauka.



EDEL
TAPIZ DENDA

Etserako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak orokorrean

Pintura industrialak

Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

FUTBOLA

Igor Gordobil arrasatearra izango da Bergara KEko futbol taldeko entrenatzailea

Gordobilek Aretxabaleta taldearekin jardun du amaitzear dagoen denboraldian

IRATI AGIRREAZALDEGI

Futbol denboraldia amaitzear da eta jadanik hasia da Bergara Kirol Elkartea denboraldi berriari begira. Zuzendaritzatik baieztatu ez diguten arren, Igor Gordobil arrasatearra izango da talde nagusiko entrenatzailea 2004-05 denboraldian.

Igor Gordobil arrasatearra izango da denboraldi berriari preferente mailan Bergarako entrenatzailea.

Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritzak oraindik ofizialki baieztatu ez duen arren, BERRIGARAK iturri onetik jakin duenez, Igor Gordobil arrasatearra Bergarara etorriko da datorren denboraldian entrenatzaile lanean jardutera.

Igor Gordobilek 33 urte ditu eta denboraldi honetan Aretxabaletako preferente mailako taldearekin jardun du. Entrenatzaile ez ezik UDAko jokalarirene ere izan zen lau urtez.

Juanina Garai egungo preferente mailako taldearen entrenatzailearen lekua beteko du Gordobilek. Garaik lau denboraldi eman ditu Bergaran entrenatzaile lanetan, lehenengo bi urteak hirugarren mailan eta ondorengo biak preferente mailako taldearekin hain zuzen.



Igor Gordobil arrasatearrak UDAko entrenatzaile lanetan jardun du azken denboraldian.

PUNTUEN BEHARRA

Preferente mailako talde bergararrari bi jardunaldi baino ez zaizkio falta aurtengo denboraldia amaitzeko.

Joan zen asteburuan Mondraren aurka jokatu zuen Berga-

rak derbia, eta puntuak eskuratzeko beharra bazuen ere, berdinketarekin konformatu behar izan zuten.

Beraz, etxean jokatuak derbia berdindu ostean, gelditzen zaizkion bi partiduetan gutxienez

puntu bat eskuratzera behartuta dago preferente mailako taldea, datorren denboraldian maila berean jokatzeko ziurtatzeko. Izan ere, orain sailkapen orokorreko hamahirugarren postuan daude Juanina Garairen mutilak.

ASTEBURUKO PARTIDUAK

Denboraldia amaitzear da maila batzuetako taldeendako, eta beste batzuek jadanik amaitu dute.

Amaitu dutenak erregional mailakoak, bigarren mailako kadeteak, lehen mailako infantilak eta nesken hamaikakoa dira. Talde guztiak maila berean izango dira datorren denboraldian. Lehen mailako infantilek, berriz, igoera fasea jokatu duten arren, ez zuten igotzerik loritu.

Gainontzekoei oraindik zenbait partidu falta zaizkie. Preferente mailakoek aste honetan Urolaren aurka jokatu dute Zumarragako Argixao zelaietan, eta datorren astean etxean amaituko dute denboraldia.

Ohorezko mailako gazteek aste honetan dute azken norgehiagoka, baita lehen mailako gazteek ere. Hauek bihar, zapatua, jokatu dute Internacional taldearen kontra. Partidua 11:30ean hasiko da, Ipintzan.

Etxean jokatu den bigarren partidua lehen mailako kadeteena da. Martuteneko taldea izango dute aurrez aurre, 18:00etan hasiko den norgehiagokan. Liga amaitu dute, eta bigarren tokian geratu direnez, igoerako kanporaketa partidua izango da hori.

Nesken zortziko taldeari ere bi partidu falta zaizkio. Haiek Txapelaldun Kopa jokatzeko dihardute.

FOTOKIROLA



Ipintzako mutilak Gipuzkoako finalean

Ipintza Institutuko infantil mailako mutilak Gipuzkoako Eskolarteko Futbol Txapelketako finalerako sailkatu dira. Finala bihar, zapatua, jokatu dute, 10:30ean, Intxaurrendoko Matigoxotegi zelaietan, Lasarteko taldearen kontra. Aitor Gorosabelekin entrenatzen diren mutilek denboraldi honetan 16 partidu jokatu dituzte eta bakarria galdu dute. I.A.


Igor Gutierrez Bergara Hiria txapelketako finalerako sailkatu da

I.A.

Martitzenean jokatu ziren Bergara Hiria torneoko lehen finalerdiak, eta jadanik bi bikote finalista erabakita daude. 22 urtez azpikoetan Olazabalek eta Beteluk jokatu dute finala eta nagusien mailan, berriz, Huizik eta Gutierrez bergararrak.

Joan zen martitzenean jokatu ziren Udal Pilotalekuan Bergara Hiria Txapelketako lehen finalerdiak.

Lehenengo 22 urtez azpikoek jardun zuten, eta antolatzaileek esan digutenez, partidu txarra izan zen, pilotariek kale asko egin baitzituzten. Olazabal-Betelu bikoteak irabazi zuen Axpe eta Errarteren aurka. Emaitza 22-16 izan zen. Beraz, maiatzaren 31n jokatu den finalean Olazabal eta Betelu izango dira.



Gutierrezek Huizi izango du bikote.

NAGUSIAK

Huizik eta Gutierrezek jokatu zuten Arantzetaren eta Jauregiaren kontra bigarren partidua.

Bertaratu zirenen esanetan, ikuskizun bikaina eskaini zuten laurek eta partidu ona izan zen.

“Onenek irabazi bazuten ere, galdu zutenak ere joko ona erakutsita joan ziren etxera. Partiduko onena Igor Gutierrez izan zela esatera ere ausartuko nintzateke”, esan digu Reyes Azkoitiak.

Datorren martitzenean Etxeberriak eta Izak Belloso eta Galarragaren aurka jokatu dute lehenengo eta Lasa eta Mendizabalek Erroizenea eta Argoteren kontra ondoren. Partiduak 19:30ean hasiko dira.

Bestalde, Bergarako pilotariek Herri Arteko Txapelketako partiduak jokatu dituzte gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita. Joaneokan galdu egin zuten, beraz, aurrera jarraitzeko irabazi egin behar dute.

Azkenik, Bergara Kirol Elkarteko pilota sailak egindako zozketak badiu irabazleak. Lehen saria Josu Zabaletak (7.012 zenezbakia) eskuratu du, eta bigarrena, berriz, Jose Mari Larrañagak (112 zenezbakia) irabazi du.

Gazte mailako eskubaloi taldeak kopako finala jokatuko du

IRATI AGIRREAZALDEGI

Eskubaloi denboraldia amaierara iristear den honetan, asteburuan hiru partidu izango dira Labegaraletan. Zapatuan gazte mailako mutilek jokatuko dute eta domekan nagusi mailako neskek eta mutilek.

Gazte mailako mutilen azken emaitzaren ostean, Bergarako taldea finalean da. Beraz, bihar, zapatua, Aloña-Mendiren aurka jokatuko duten partiduak ez du aparteko garrantzirik. Norgehiagoka 12:15ean izango da, Labegaraletan.

Finala, berriz, datorren egunean, hilaren 27an jokatuko dute, Mutrikun, 20:00etan. Aurkaria Zarauzko taldea izango da, eta talde gogorra izanik, bergararrek oso ondo jokatu beharko dute partidua irabazteko eta, bide batez, Kopako garaile izateko.



JOSETXO

Zapatuan Aloña-Mendi izango dute aurrez aurre Muniategiren mutilek.

Jardunaldi honetako gaintzeko bi partiduak domekan izango dira. Goizeko 11:00etan hasiko dute jokalariek partidua. Nagusi mailako neskek Bera-Bera talde indartsua-

ren aurka jokatuko dute. Nagusi mailako mutilek, berriz, eguerdiko 12:30ean dute norgehiagoka, Egiako taldearen kontra jokatuko dute jardunaldia hau.

FOTOKIROLA



Ariznoako gimnastek maila ona erakutsi zuten Astigarragan

Antzuolako eskola eta Mariaren Lagundia ikastetxea ordezkatuz, Ariznoako gimnastak Ibarren eta Astigarragan izan dira. Hala, txapelketa hauek jokatu ostean, Euskadiko Txapelketako finalerako sailkatu dira. Astigarragako saioan, infantil mailan, Oihane Agirre laugarren izan zen; taldea, berriz, lehenengo izan ziren, baita alebin mailan ere. /I.A.

SASKIBALOIA

Domekan Mariaren Lagundian jokatuko dute Araneta taldeko kadete mailako mutilek

Araneta taldeko kadete mailako mutilek domekan, 12:00etan, partidua jokatuko dute Mariaren Lagundian, Easo taldearen aurka. Denboraldi ona egin dute, aurkariak baino maila hobea erakutsita eta partidu asko irabazita. Gabonetan Gipuzkoako finalerdietan izan ziren, baina ordutik hona behera egin dute ligan.

PIRAGUISMOA

Beti-Bustiko piraguistek Euskadiko Kopako hirugarren proban hartu dute parte

Beti-Bustiko piraguistak Iparraldean, Orthezen, izan ziren maiatzaren 18an, Euskadiko Kopako hirugarren proba jokatzen. Senior mailan, Roberto Puy zortzigarren izan zen eta Eneko Iturrospe bederatzigarren. Junior mailan, Markel Agirre bigarren eta Iraitz Artola hirugarren. Kadete mailan, nesketan, Leire Fernandez bigarren izan zen; mutiletan, berriz, Markel Cestafe laugarren eta Ibon Etxezarreta zortzigarren. Taldea Beti-Busti hirugarren izan zen.

BOCCIA

Aritz Bikuña Espainiako Boccia Txapelketan izango da Euskadiko selekzioarekin

Espainiako Boccia Txapelketa jokatuko da asteburu honetan Oviedon. Aritz Bikuña bergararrak bertan hartuko du parte Euskadiko Boccia Selekzioarekin. Logroñon eta Iruñean jokatutako sailkapen probetan jardun zuen Bikuñak, eta azken honetan lortu zuen Oviedorako txartela. Euskal Herriko Txapelketan irabazle izan ostean, gogotsu joango da Aritz taldekideekin Asturiasera.

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

PARTIDUAK

EGUBAKOITZA, 21 (SENIOR NESKAK)

19:30: Antzuola-Plaust
19:30: Epa Gindis-Potzu ta Zapaburuak
20:30: Ogizun-Pentol's Team
20:30: A Willy-Willy-Ou Pitxu Ou!

EGUENA, 27 (BETERANOAK)

19:30: Txipiron-A Ze Flaxa
19:30: Canalejas-Bildurbarek Opel Lam
20:30: Mongatxurak-Guipuzcoana
20:30: Ezinleike-Arloteak

ASTELEHENA, 24 (SENIOR NESKAK)

19:30: Pentol's Team- A Willy-Willy
19:30: Potzu ta Zapaburuak-Ogizun
20:30: Plaust-Epa Gindis
20:30: Baztangak-Antzuola

LABEGARAIETAKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

20:00: Torpedo Musakola-A Ze Flaxa


DOMEKAN, BARRUAN

20:00: Pirulotarrak-Mongatxurra

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

FRONTOI




TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

ARREGI AROZTEGIA



PVCzko
LEIHOAK



Zatoz gure
erakusketa handitu
eta berritura.
Bidekurutzeta
38an gaude.



SUKALDEAK

ATEAK ETA
LEIHOAK



HORMA ARMAIRUAK



BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

SAIO BEREZIA
GOIENAN HERRIZ HERRI
Debagoiena hizpide

Martitzenean, abenduaren 25ean,
20:30ean

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea

Parte hartzeko telefonoa:
943 71 23 93



Ikustekoa!

GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:





Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 21. alia

IEPA LAGUNOK!

Ailegau da berriz be eguakitza. Zelako azkar pasatu dan astia eta gaur be pozez zorutzen nago zuek danok nerekin tartetxo batez egongo zaretelako. Ia gaurko alia zuen gustokua dan!



URREZKO ARAUAK

- Ez zaittut ezagutu.
- Ni baiño azkarragua zara.

- Ez dotsut ezagutu
- Nere baiño azkarragua zara.



JOLASA

Objetu eta tresna desberdiñak lurrian Olagako dira. Jokalarixak pelota bigun bat eskuetan daukala, objektu horretatik zein joko daben esango dau. Esaten dabena jotzen badau, 5 puntu lortuko dittu, baiña, esaten dabena jotzen ez badau, ez dau puntu bakar bat be lortuko. Jokalari danak txandaka arituko dira. Jolasak 50 puntu lortu arte iraun leike.



ABESTIXA

Akerra ikusi dugu.

Akerra ikusi dugu baratzean jatean makila ikusi dugu aker hori jotzen, sua ikusi dugu makila erretzen, ura ikusi dugu su hori itzaltzen. Urak sua, suak makila makilak akerra, akerra ken baratetik akerra ken ken ken ken ken.

Idia ikusi dugu ur hori edaten soka ikusi dugu idi hori lotzen, sagua ikusi dugu soka hori xehatzen, katua ikusi dugu sagua harrapatzen. Katuak sagua, saguak soka, sokak idia, idiak ura, urak sua, suak makila, makilak akerra. Akerrak ken baratetik akerrak ken ken ken ken ken.

IRABAZLIA

Aurreko asteko erantzun zuzenak

- NEIKE
- GIÑUAN
- GONTSAN
- GAITTUE
- ZAITTU
- ZITTUAN



ALAZNE BASTERRA
7 urte
Mariaren
Lagundia
Ikastetxekoa

KOMIKIXA



E, TXO!

NAZIOARTEKO LAN UDALEKUAK

Udarako nazioarteko lan udalekuak antolatu ditu SCI-SIV elkarteak. Arrazakeria, bakea, gutxitu fisikoak, haurrak, nerabeak, hirugarren adinekoak, ondarea zaharbertitza, sexualitatea, kultura, nekazaritza, ekologia, eta era horretako gaietan jardungo dute lanean udaleku hauetarako izena ematen dutenek. Horretarako telefono honetara deitu behar da: 915 30 73 09. Informazio gehiago honako helbidean aurki daiteke: www.nodo50.org/siv.

ATZERRIAN IKASKETAK SAKONTZEKO BEKAK

Espainiako Bankuak bost beka emango ditu atzerrian ekonomia ikasketak sakontzeko. Eskaria egiten dutenek Unibertsitateko fakultate edo eskola teknikoetako goi mailako titulazioa izan behar dute eta ikasketak egingo diren herrialdeko hizkuntza ezagutu. Ikasketak ekonomia teorikoaren gainekoak izango dira. Informazio gehiago www.bde.es helbidean aurki daiteke. Izena emateko azken eguna ekainaren 15a da.

ARTE ESZENIKOEN INGURUKO IKASTAROAK

Sarobe Arte Eszenikoaren Guneak hiru ikastaro antolatu ditu. Lehenengo aktoreek euren burua produktu gisa saltzen ikasteko izango da, uztailearen 8tik 12ra bitartean. Bigarrena film luzeetako gidoiak idazten ikasteko tailerra, uztailearen 13an hasi eta urtarrilaren 10era artekoa; eta hirugarrenean ahotsaren adierazpena landuko da, uztailearen 16an eta 17an. Izena emateko 943 00 80 42 telefonora deitu behar da.

GUREGAIK/ 'GAZTEBERRI' ALDIZKARIA

Gazteen informazioa aldizkari berrian

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gazteberri euskarazko gazte informazio aldizkaria prestatu dute Jesus Maria de Leizaola elkarteak eta *El Periódico Universitario*-k 16 eta 30 urte arteko gazteei zuzenduta dago eta hilabetekaria izango da.

Argitalpen berri hau Hego Euskal Herri osoan banatuko da, eta EAEko zein Nafarroako unibertsitateetan, gazte informazio bulegoetan, udal liburutegietan eta kiroldegietan eta antzerako beste toki batzuetan eskuratu ahal izango da.

Hilero kaleratuko da *Gazteberri*-ren zenbaki bat, eta 25.000 aleko tirada izango du.


Lehen zenbakiak 16 orrialde izango ditu, baina pixkanaka orrialde kopurua zein edukiak hazten joango dira. Gazteei zuzendutako informazioa bilduko du; besteak beste, bekak eta dirulaguntzak, aisialdia, zinema, musika, sexualitatea, eta era horretako gaiak. Aldizkari honen bultzatzaileek interesa duten edukiak kalitatezko euskarrian bildu nahi izan dituzte.

HELBURUA

Jesus Maria de Leizaola elkarteak eta *El Periódico Universitario* egunkariak batera egingo dute hilabetekari berria. Eta haren helburu nagusia da gazteen argitalpenen esparruan euskararen presentzia areagotzea.



Gazte Informazio Aldizkaria 2004ko MAIATZAK Doan 1,2€



Gazteberri aldizkariaren lehen aleko azala.

LOTSABARIK/ Markel Otaegi

“Egun txarrarekin, denak amorratzen nau”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mutil serioa da Markel, behar denean umorea erakusten badakien arren. Gure galderei zorrotz erantzun die telebistari apenas ikusten duen gazte honek, batzuei serio eta beste batzuei umore puntuarekin.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?
Ez nintzateke alkate izango.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?
Ez daukat ezer nire karpetan.
- Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?
Ikusleak lelotzat hartzen dituzten programak ez zaizkit


gustatzen, baina ez ditut gorroto; gustukoena, berriz, zerbait esatearren, pilota partiduak.

- Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?
Orokorrean lanik egin gabe bizitzan aurrera egin nahi dutenek nazka-edo ematen didatela esan daiteke. Eta gustukoena, ba, bat aukeratzearen, Iban Garate gustuko dudana pertsonaia bat da.
- Zerk amorratzen zaitu?
Egun txarrarekin, ia denak.
- Zer estimatzen duzu besteengan?
Besteengan ere pentsatzea.
- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?
Zeharka bada ere, neure buruari, zoriontsu bizitzeari.

- Zure bertute bat? Eta akats bat?

Ez dakit bertute edo akatsa den, baina batzuetan besteren arazoak nire egiten ditut. Akatsa, batzuetan lotsatiegia naizela.

- Zelan ligatzen duzue gazteok?
Helduen eta zaharren antzera. Nork bere metodoa du.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?
Nire gustukoa, nola ez. Bere ondoan egote hutsak zoriontasuna ekarriko lidakeen pertsona. Ameslari samarra naiz bai.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?
Nire maitarekin izarretara.
- Etorkizunerako amets bat?
Zoriontsu izatea, besterik ez.



ADINA: 22 urte • IKASKETAK: TAFYD • ZALETASUNAK: Musika • LIBURU BAT: *Berrero igo nauzu* • FILM BAT: *Braveheart* • MUSIKA TALDEA: Betagarri • KIROL TALDEA: Dordoka kirol taldea

TIRABIRAKA/ Unai Azkarate



ELKARRIZKETA

FRAN ITURBE/MUSIKARIA

“Dibertimendurako taldea da Elkano Browning Cream; musika dantzagarria egiten dugu”

EDU MENDIBIL

Fran Iturbe gitarra jole bergararra Iruñeko bere estudioan harra-patu dugu lanean. Lantokia du estudioa. Bien bitartean, Mikel Erentxunekin eta Ana Pozasekin jotzen ari da eta beste bi lagunekin batera esperimentu berria jarri du abian: Elkano Browning Cream.

Zelako musika egiten du Elkano Browning Cream-ek?

Musika instrumentala, blues eta jazz estiloetako. 1950-60 bitartean egiten zen musika komertzial eta dantzagarria egiten dugu, Blue Note diskoetxe famatuak kaleratzen zuen antzekoa. Mikel Azpiroz (hammond organoa), Carlos Arantze (bateria) eta ni neuk osatzen dugu taldea, eta dibertimendurako esperimendua da, ondo pasatzeko. Goatekeetarako musika egiten dugula esan genazake, Dry Martini edo koktel batekin laguntzekoa. Datorren eguaztenean, hilaren 26an, Tolosako kultura etxean joko dugu eta ekainean Bartzelonan, La Boite aretoan, hain zuzen ere.

Izen bitxia jarri diozue taldeari.

Antza, *belle époque* garaian-edo, Donostiako farmazia baten

bertan landutako eguzkitako krema saltzen zuten, Elkano Browning Cream izenekoa. Talderako izen aproposa iruditu zitzaigun.

Mikel Erentxunekin biran jarraitzen duzu oraindik.

Ciudades de paso diskoko birarekin gaude oraindik. Aurreko aste bukaeran Valentzian izan ginen, Xativan. Harrera ona izan du birak, eta ekainean disko berria grabatzen hasiko gara.

Lan berriaz zerbait aurrea dezakezu?

Kantu ezagunenen bilduma izango da eta, horrez gain, bospasei nobedade edukiko ditu. Lantetako Du Manoir estudioetan egingo dugu grabaketa eta kantu zaharren bat edo beste berriro grabatuko dugu.

Mikel Erentxunen erreperitoriotik zein kantu nabarmenduko zenuke?

Zaila da hau edo bestea nabar-

mentzea. Dena den, *Suelta las riendas de tu corazon*, *A un minuto de ti*, *Seda*, *Mañana* eta *De espaldas a ti* gustatzen zaizkit gehien.

Ana Pozasekin ere bazabil-tza. Zelako harrera izan du *Sin querer* diskoak?

Ona, irрати formuletan-eta asko entzuten ari da, eta apirilaren leian Donostiako Principal antzokian eman genuen kontzertuan jende mordoa egon zen; ikusleak gustura geratu ziren.

Zelan egiten duzu horrenbeste taldetan batera ibiltzeko?

Batzutan ezinezkoa da guztien konpromisoak betetzea eta kasu horietan ordezkoak topatzen ditut. Bide Ertzeanekin Joseba Irazoki bidaltzen dut, Ana Pozasekin Kike Madrilgo lagun bat... Zela edo hala konpontzen naiz, ez da horren zaila.


Zertan ari zara orain Iruñeko estudioan?

Grabatzeko estudioa baino gehiago, estudioarako estudioa dela esaten dut. Kantak egiten ari naiz, objektibo garbirik gabe. Iku-si behar zer irteten den gero.

Zein musika taldek harritu zaitu gehien aspaldian?

Strokes, Wilco, The White Stripes, eta abarrek. Horiekin batera, Elvis Costello eta Neil Young entzuten jarraitzen dut, betitik gustukoak ditut.

“Mikel Erentxunen disko berria grabatuko dugu ekainean, kantu ezagunenen bilduma”



ARTXIBOA



Txotxongiloen festa domekara bitartean

Atzo, eguena, hasi zen Helduentzako Nazioarteko VII. Mostra. Hala, domekara bitartean, Txina, Argentinatik, Italiatik, Alemaniatik, Kataluniatik eta Andaluziatik etorritako taldeen ikuskizunak izango dira. Emanaldiok Novedades aretoan, gaztetxean eta kalean izango dira. Txotxongiloek Bergara hartuko dute. Programazioa aurreko asteko zenbakian kontsulta dezakezue.

KULTURAPILULAK

Eneko Etxebarrietaren diaporama emanaldia martitzenean, Jardun elkartearen eskutik

Jardun euskara elkarteak antolatuta, Eneko Etxebarrietaren *Munduari itzulia milaka egunetan* diaporama emanaldia izango da datorren martitzenean, hilak 25, kultura etxean, 19:30ean.

Etxebarrietak munduan zehar egindako bidaiaren irudiak erakutsiko ditu martitzeneko emanaldian.

Haurrei zuzendutako antzerki emanaldiak gaur eta bihar, Angiozarren eta Osintxun

Kutzak udalarekin batera antolatutako ekitaldien barruan, bertsoak eta antzerkia tartekatzen dituen *Inaxitoren ametsak* lana izango da gaur, egubakoitza, Angiozarren, 18:00etan.

Bihar, zapatua, Txotxongilo taldearen *Herensugea* ikusteko aukera izango da, Osintxuko ludotekan, 17:00etan.

Fito & Fitipaldis taldeak bi emanaldi egingo ditu datorren astean Jam aretoan

Fito & Fitipaldis taldeak *Lo mas lejos, a tu lado* diskoa aurkeztuko du maiatzaren 27an eta 28an Bergarako Jam aretoan. Eguenean 21:00etan hasiko da kontzertua eta egubakoitzean, berriz, 22:00etan. Bi emanaldiotarako sarrerak ohiko tokietan daude salgai, 15 euroren truke.



BERGARA
Jose Zafra
Maiatzaren 21ean, 51 urte.
Zorionak! Emaztea eta alabak, batez ere, Tamara.



BERGARA
Mikel Murgizu
Maiatzaren 11n, 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ander Murgizu
Maiatzaren 28an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Paula Aranzabal
Maiatzaren 26an, 11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Miren Urrea
Maiatzaren 24an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki, Jone.



BERGARA
Alex Arteaga
Maiatzaren 25ean, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainhize Goiti
Maiatzaren 22an, urtebete.
Urte askotarako!
Eider, Ibon eta Julen.



BERGARA
Oier Sanchez
Maiatzaren 19an, 2 urte.
Zorionak! Bergararik Hondarrabira, Bernar eta Ana.



BERGARA
Jane Agirre
Maiatzaren 18an, 4 urte.
Zorionak! Gurasoak eta, batez ere, Aimar.



BERGARA
Tamara Zafra
Maiatzaren 20an, 6 urte.
Zorionak! Gurasoak eta ahizpak.



BERGARA
Karmele Uribesalgo
Maiatzaren 19an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoak eta, batez ere, Beñat.



BERGARA
Iñigo Beain
Maiatzaren 22an.
Urte askotarako! Etxekoak, bereziki, Maialen.



ANTZUOLA
Manex Balerdi
Maiatzaren 19an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Amaia Goiti
Maiatzaren 27an.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki, ilobak.



BERGARA
Elena Asensio
Maiatzaren 22an, 92 urte.
Zorionak!
Jesus M^a eta Belit.



BERGARA
Haizea Iñarra
Maiatzaren 21ean, 10 urte.
Zorionak! Etxekoak eta Maddi.



ELGETA
Izar Irazabal
Maiatzaren 20an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Iñaki Beristain
Maiatzaren 21an, 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehene-tan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua



BERGARA
Manex Bengoa
Maiatzaren 25ean, 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Maddi.




BERGARA
Mikel Gutierrez
Maiatzaren 21ean, 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, Aitzol eta Amaia.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.


Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko maiatzaren 21a / 202. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 - 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Udarako egitarau zabala prestatu du Udalak, kirol ikastaroekin, bereziki

AINTZANE IRIZAR

Urtero moduan, era guztietako ikastaroak antolatu ditu Udalak udari begira. Gaztetxoendako, helduendako eta erretiratuendako, guztiendako izango dira ikastarook. Kasu gehienetan, ekainaren 8ra arte, martitzena, dago izena emateko aukera.

Orientazio ikastaroa, aerobic eta step ikastaroa eta kirol ezberdinetan jarduteko beste ikastaro bat; horiexek eskaintzen dizkie aukeran Udalak, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei. Orientazio ikastaroa ekainaren 21ean, 22an eta 23an izango da, Herri Ikastetxean, 09:00etatik 12:00etara. Matrikula 30 euro da.

Aerobic eta step ikastaroa, berriz, uztailearen 19tik 30era izango da, egunero, 11:00etan; matrikula 15 euro izango da.

Azkenik, hainbat kirol ezberdin egiteko aukera ere izango dute gaztetxoek, frontoian. Ikastaro hori ere uztailearen 19tik 30era izango da, 10:00etatik 12:00etara. 20 euro kostako da.

Izena emateko epea ekainaren 8an amaituko da.

HELDUENDAKO ERE IKASTAROOK

Gaztetxoendako ez ezik, helduendako ere hainbat ikastaro antolatu dituzte.

Alde batetik, azkeneko urteotan bezala, ingelesa ikasteko udalekuak izango dituzte DBHko ikasleek. Errekaldeko lokalean izango da ikastaro hori, uztailearen 1etik 15era. 09:30etik 13:00etara izango dira udalekuok. Matrikula 66 euro da, eta, hain zuzen, maiatzaren 28an bukatuko da izena emateko epea.

Bestalde, helduek ere izango dute orientazio ikastaroa egiteko aukera, uztailearen 1ean, 2an eta 3an. 19:00etatik 22:00etara izango dira saioak, Herri Ikastetxean. Matrikula, berriz, 30 euro da.

Aerobic ikastaroa ere egongo da; bi txanda egongo dira: uztailearen 1etik 15era bata, eta 19tik 29ra bestea. Kasu bietan, astelehen, eguazten eta egubakoitzetan izango dira saioak eskolako gimnasioan, 19:15ean; matrikula 8 euro ordaindu beharko da.

Gimnasia ikastaroa ere egongo da, aerobica bezala, bi txandatan. Gimnasia eskolak, baina, martitzen eta eguenetan izango dira, 10:00etan. Matrikula, 5 euro.

Kasu guztietan, ekainaren 8an amaituko da izena emateko epea.

Bestalde, ume txikiei masajeak ematen ikasteko ikastaroa antolatu dute aurrean. Uztailearen 1etik 15era izango da, astelehenetik eguenera, 19:00etatik



Helduendako eta gaztetxoendako orientazio ikastaroa antolatu dute.

20:15era, Orlanen. Matrikula 80 euro da. Eta, azkenik, erretiratuendako gimnasia ikastaroa ere egongo da. Hemen ere bi

txanda egingo dituzte, eta martitzen eta eguenetan izango dira saioak, 10:00etan. Matrikula 5 euro da.

ANTONIA NOGUEIRAS / UMEEN MASAJE IKASTAROKO IRAKASLEA

"Ukimenaren bitartez, hitzez komunikatu ezin ditugun gauza asko komunika ditzakegu"

Zeini zuzenduta dago ikastaroa?

Batez ere, gurasoei edo guraso izango direnei; dena dela, irakasleak edo interesa duten beste batzuk ere etorri izan dira.

Ze onura dauka masajeak umearendako?

Orokorrean, umearendako eta gurasoendako, denendako dauka onurak masajeak; batez ere, kontaktu fisikoa dagoela-

ko. Azken baten kontaktu horren bitartez, ukimenaren bitartez, hitzez komunikatu ezin daitezkeen gauza asko komunikatu ditzakegu: kariñoa, maitasuna, goxotasuna...

Arazo jakinei aurre egiteko ere hainbat baliabide eskaintzen dizkigu masajeak: umea lasaitzeko, hobeto lo egiteko, haizeak kanpora botatzeko... **Zelako programa prestatu duzue ikastarorako?**

Hasieran, gurasoak bere burua erlaxatzen ikasi behar du; lasai-lasai eman behar zaio masajea umeari. Behin hori lortuta, gorputzeko atal ezberdinetan zelako masajeak eman behar ditugun ikasiko dugu.

Aipatu behar dugu, bestalde, ikastaroan ez dutela gurasoek bakarrik parte hartuko; umeari etorriko dira. Umerik ez dutenak, berriz, panpina batekin ikasiko dute.



Antonia Nogueiras.

LABUR

Umeen zaintza premien gaineko inkesta gurasoei

Herri Ikastetxeko arduradunek inkesta bat banatuko dute datozen egunotan gurasoen artean. Inkesta horrekin ikusi nahi dutena da eskola orduetatik kanpo gurasoek dituzten zaintza premiak zenbaterainokoak diren. Maiatzaren 27a baino lehen eraman behar dira inkestok eskolara.

Ipuin kontalaria izango da zapatuan liburutegian

Bihar, zapatua, beste ipuin kontaketa saio bat izango dugu liburutegian. Udal Liburutegiak antolatu du saio hori, eta Arantxa Cruz Arrillaga kontalaria izango dugu bihar koan. 18:00etan hasiko da saioa, eta, batez ere, lau urtetik gorako umei zuzenduta egongo da.

Ipintzako futbol txapelketan, herriko neskek

Gaur, egubakoitza, hasiko da Bergarako Ipintzako Futbol 7 txapelketa. Senior mailako nesken artean, Antzuolako talde batek parte hartuko du txapelketa horretan. Gaur, egubakoitza, 19:30ean, jokatuko dute lehendabiziko partidua antzuolarrek, Plaustaldearen aurka.

Baserrietako plastikoa hilaren 25ean batuko dute

Debagoieneko Mendi Nekazaritzak baserri ingurunean sortutako plastikoa batzeko zerbitzua dauka; maiatzaren 25ean, martitzena, pasatuko dira plastikoa batzera. Antzuolan, Zupide baserriaren azpiko aldean dagoen aparkamendura eraman behar da plastikoa, martitzen arratsaldean.

JAIK

Mairuaren Alardearen Elkarteak aurkeztuko dute maiatzaren 27an

AINZANE IRIZAR

Datorren asteko egunean, hilak 27, Mairuaren Alardearen Elkarteak aurkeztuko dute, 19:00etan, Olanan etxean. Elkarte honen helburua izango da alardea sendotzea eta bultzatzea. Hantxe izango dira Jauriaritzako eta Diputazioko ordezkariak ere.

Jose Luis Kortabarría izango da elkarte berri honetako presidentea. Bera izan da urtetan alardeko protagonistetako bat, kapitainaren papera egin du eta. Berarekin eta elkarteko beste kide batzuekin batera, eguneko aurkezpen ekitaldian izango dira, besteak beste, Udaleko ordezkariak, Eusko Jaurlaritzako kultura ondarearen zuzendari Arantxa Artzamendi eta Foru Aldundiko ondarearen teknikari Gabriela Vives.



Mairuaren alardea bultzatzea da elkartearen helburua.

ALARDEA BULTZATZEA HELBURU

Jose Luis Kortabarría presidentek azaldu digunez, euren helburua da alardea babestea, bultzatzea eta indarberritzea. Bes-

telako ondareak babesten eta zaintzen diren moduan, ohiturak ere ondareak dira eta. Gainera, herri-tarren parte-hartzea bultzatu nahi

dute. Oraingoan, bost lagunek dihardute elkarte horretan, baina ateak zabalik dituzte parte hartu nahi dutenentzako.



Gimnastak Gipuzkoako txapelkun

Aurreko astean gimnasia erritmikoko Gipuzkoako Txapelketan lan bikaina egin zuten antzuolarrek. Infantil mailan, Olaia Gastiainek eta Itsaso Garmendiak hartu zuten parte, Mariaren Lagundiko taldearekin; lehenengo sailkatu ziren. Alebina ere lehenengo sailkatu ziren; Herri Ikastetxearen izenean parte hartu zuten Ane Alberdik, Jone Larrañagak, Eukene Bastarrikak, Amaia Irastortzak eta Onintza Legorburuk. Hilaren 29an Euskadiko Txapelketa jokatuko dute./A.I.

HERRITARREN HITZA / Kontxi Laskurain · Dendaria

Mundu hobea eraikitzen

Oraingo honetan, Anelkarreko kide bezala idatziko dut; baina neure izenean, ez taldearenean. Pasa den zapatuan pintxoak saltzeko txosna eta bidezko merkataritzako postua jarri genituen, Antzuolako hiru misiolariendako dirua batzeko. Eurok dira herri baten elkartasunaren adierazle argienak, lantzaeren muturra. Hori bai, gero eta misiolari gutxiago dago; orain dela 20 urte, 10 ziren misiolari antzuolarrak. Orain, hilabeterako, bi hilabeterako... edo, asko jota, urtebeterako kooperante bezala joaten da jendea Hirugarren

Munduko herrialdearen batera. Eta hori ere batzuk bakarrik egiten dute. Gehienok Gobernu Kanpoko Erakunde bati dirulaguntza ematera mugatzen gara.

Anelkarren urteak daramatzagu elkartasun ekintzak egiten. Hala ere, batzuetan nire buruari galdetzen diot ea zerbaiterako balio duen horrek. Pasa den zapatuan, etxean lasai egon beharrean edo paseatzera joan



"Misiolariak dira herri baten elkartasunaren adierazle argiena"

beharrean, gu herriko plazan pintxoak egiten eta saltzen egon izanak aldatuko du munduaren norabidea?

Onartu beharra daukat zenbaitetan ezkorra naizela eta dena bertan behera uzteko gogoia izaten dudala. Baina beste batzuetan konturatzan naiz besteei laguntzeko gauzak eginda, nire bidea

ere zuzentzen dudala: neure kio-keria baztertu eta eskuzabalago egiten naiz, eta horrek zorion-

tsu egiten nau. Uste dut hala pentsatu eta sentitzen dugunak asko garelako, mundua aldatzen doala, poliki-poliki bada ere.

Argi daukadana da, misiolariak, kooperanteak eta taldeetan elkartuta kausa, pertsona edo herrialde bati elkartasuna adierazten dioten lagunak egongo ez balira, mundu hau askoz ere okerrago egongo litzatekeela!

Batzuetan baliogabe sentitzen naizen arren, badakit lan egin behar dudala egunen batean desio dudana "mundu hobea" hori errealitate bihurtu dadin.

LABUR

Arrolak asteburuko irteera antolatu du ekainaren 5erako

Ekainaren 5erako eta 6rako antolatu du irteera Arrolak, Moncayora eta Bardeetara joateko. Agredas herriatik Moncayora (2.316 m) igoko dira. Tontorretik Nafarroako, Soriako eta Zaragozako lautadak ikusten dira. Gero, Tarazonara jaitsiko dira; gutzira, lauzpabost orduko ibilaldia izango da. Domekan, berriz, Bardeetan bospasei orduko ibilaldia egingo dute. Martitzen arratsaldean, hilak 25, egongo da izena emateko aukera Arrolaren egoitzan.

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko maiatzaren 21a / 186. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Kirolak, musika, dantzak eta bazkaria Asentzión domekan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Domekan, hilaren 23an, Asentzio Eguneko ospakizunak egingo dira Asentzio gaineko putzuaren aldamenean. Gazte Asanbladakoek izango dute ekitaldiak gertatzeko ardura, eta aurrez, eguna girotzeko, gaurko rock kontzertua antolatu dute.

Bederatzi urte beteko dira aurten herriko gazteek Asentzio Eguna berreskuratu zutenetik. Bederatzi urteotan hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horren inguruan eta aurtengorako ere gertu dauden jadanik herriko gazteak.

Urte hauetan guztietan ekin-tza bereziekin girotu dute Asentzio Eguna. Herriko txapelkunak lehian ikusi dira bertan, gazte eta zaharren arteko desafioak egin dituzte eta dantza erakustaldiak zein arrantza txapelketak ere egon dira.

Bizikleta lasterketarekin hasiko da eguna aurten. Goizeko hamaiketean izango da karrera. Beste urte batzuetan honen ordez Intxortarako igoera, karramarro arrantza Asentzioko putzuan... antolatu izan dituzte.

Lasterketa amaitutakoan, eguerdian, meza izango da Asentzioko baselizan, urtero egin ohi den moduan.

Mezaren ostean, herriko dantzariak erakustaldia eskainiko dute bertaraturako herritar guztien aurrean.

Asentzión goizean zehar txosna ipiniko dute Gazte Asanbladakoek, eta bertan, pintxoak eta edariak izango dira nahi dute-nendako. Bestalde, Gure Borda Elkartekoek salda eta txorizoa banatuko diete goizean Asentziora gerturatzen direnei.

HERRI KIROLAK

Dantzak ikusi ondoren herri kirolen txanda etorriko da. Herriko hainbat koadrilak hartuko dute parte herri kirolen txapelketan. Koadriletako neska-mutilek artoa jasotzen, sokatiran eta zaku karretan jardun beharko dute nor baino nor gehiago. Orain dela zenbait urte egin ziren antzerako probak Asentzio Egunean, eta



Mezaren ostean herriko dantzariak erakustaldia eskainiko dute Asentzión.

ARTXBOA

lehiaketa modu umoretsuan eginenez, eguna girotzeko asmoz antolatu dute aurten ere txapelketa.

Herri kiroltan jardundakoek indarrak berreskuratzeko eta gainontzekoek sabela betetzeko bazkaria izango da gero. Entsalada mistoa, solomoa piperrekin, postrea eta kafea izango dituzte mahai gainean bazkarirako.

Bazkalostean, Asentziotik herrira jaitsi eta jai giroak bertan jarraituko du. Izan ere, triki-poteoa egingo dute herrian Bergarako trikitilariak.

EGUNA GIROTZEKO KONTZERTUAK

Baina Asentzio Eguneko ospakizunak aurrez hasiko dituzte elgetarrek. Gazte Asanbladakoek antolatuta, gaur, barikua, kontzertua izango da 22:30ean hasita gaztetxean. Bertara joan nahi dutenek hiru euroko sarrera ordaindu beharko dute.

Aterkings talde markinarrak eta Black Sheeps bergararrek jardungo dute. Aterkings talde rockeroa beste talde batzuetan ibilitako musikariak osatutakoa da. Black Sheeps taldekoek ere rock

doinuak eskainiko dituzte. Elgetarrek ezagutzen dituzte bi taldeok, aurrez ere inoiz izan baitira gaztetxean.

Gazte Asanblada arduratu da Asentzio Eguneko antolaketa lanez, baina Udalak dirulaguntza eman die ekintza horiek gertatzeko. Guztira, 240 euro jasoko dituzte Gazte Asanbladakoek Udaletik. Diruz laguntzeaz gainera, musika tresnak eta beste hainbat gauza ere lagako dizkie Udalak, Asentzio Eguneko ekintzak egoki irteteko.

Asentzio Eguneko egitaraua



MAIATZAK 21, BARIKUA

22:30: Kontzertua: Black Sheeps (Bergara) eta Aterkings (Markina). Gaztetxean.

MAIATZAK 23, DOMEKIA

11:00: Bizikleta lasterketa

12:00: Meza.

Ondoren: Dantzak

Gero: Koadrilen arteko herri kirol txapelketa: Arto jasotzea, soka-tira eta zaku karrera.

14:30: Bazkaria.

Bazkal ostean: Triki-poteoa herrian.

LABUR

HZk gudariei omenaldia egingo die Asentzión

Herritarren Zerrenda taldeak hainbat ekitaldi egin ditu asteon ibarrean. HZ taldearen helburua da Euskal Herria nazio gisan aurkeztu ahal izatea Europako hauteskundeetan. Horretarako *Euskal Herria Europan* izeneko hitzaldi sorta egin dute Debagoieneko hainbat herritan. Ekitaldi hauekin amaitzeko, domekan, hilaren 23an, lehengo eta oraingo gudariei omenaldia egingo diete Asentzioko bidegurutzean, 12:00etan. Monolitoean plaka bat ipiniko dute.

Aukeratu dituzte hauteskundeetako mahaikideak

Osatu da Europako Parlamenturako 2004. hauteskunde eguneko hautesle mahaian egongo den taldea. Mahaiburuia izango da Guillermo Garcia eta bere ordezkoiak Maria Beatriz Sarraoa eta Jon Iturricastillo. Lehenengo mahaikidea izango da Maria Pilar Garay eta bere ordezkoiak Maria Concepcion Gorrotzategi eta Nerea Sarasua. Bigarren mahaikidea, berriz, Mikel Elkoro izango da eta ordezkoiak, Gorka Bolinaga eta Francisco Javier Garay.

Pilotalekua itxita martitzenetik barikura bitartean

Udaleko Kirol Zerbitzutik jakinarazi digutenez, datorren astean pilotalekua itxita egongo da egun batzuetan. Martitzenean, hilaren 25ean, itxi eta barikura arte, maiatzaren 28ra arte, ezin izango dira bertara sartu, ez pilotan jokatzera ezta bestelako kiroltan jardutera. Pilotalekua itxtearen arrazoia bertan egin beharreko margotze lanak dira. Bestalde, hainbat konponketa ere egingo dituzte. Beraz, datorren asteburutik aurrera erabiltzeko moduan izango da.

ERLOJUA

Elizako erlojua konponduta, ordua egoki ematen hasi da

I.A.


Iazko udan utzi zion funtzionatzeari elizako erlojuak, eta Gasteizen konponketak egin ostean, joan zen astean jarri zituzten makineria eta orratzak bere lekuan. Hemendik aurrera, beraz, berriz ere ordua modu egokian emango die elgetarrei erlojuak.

Erlojua 1969an ipini zuten elizako kanpandorrean. Galdategi baten egindakoa da, Viuda de Muruaren tailerretan. Erlojua konpontzen jardun duten Sueskun anaiek esan zigutenez, oso erloju onak egiten zituzten han.

Baina denbora ez da alferrrik pasatzen, eta iazko udan gelditu egin ziren erlojuaren orratzak. Erlojuak zuen arazoa zen oso zikina zegoela, koipe zikina zuen. Honetaz gain, orratzak herdoildu egin ziren eta blokeatuta zeuden, ez aurrera ez atzera.

Gasteizko Miriam-Hermanos Sueskun erloju-dendakoek jardun zuten joan zen asteko eguean eta barikuan erlojua behar den moduan egokitzen.

Sueskun anaien lanak nahi-



Elizako kanpandorretik zintzilikatuta konpondu zuten elizako erlojua.

koa ikusmin sortu zuen. Izan ere, kanpandorretik zintzilik jardun zuen lanean bi anaietako batek, besteak barrutik makineria orratzekin egokitzen zuen bitartean.

DIRULAGUNTZA

Erlojua konpontzeak 5.788 euroko kostua izan du eta horietatik 5.000 euro herritar batek ipini ditu: Joakin Gastezi Agirrezabalak, hain zuzen ere.



Sarea areto futboleko kantxan

Areto futbolean jokatzeko erabiltzen den kantxan sarea ipintzeko erabakia hartu du Udalak, eta baita ipini ere. Baina baloiak kantxatik kanpo ez jausteko irtenbide hau behin-behinekoa baino ez da. Areto futbol txapelketa amaitzeaz bat kendu egingo dute sarea. Bitartean aztertu egingo dute kantxarekin zer egin. Izan ere, baliteke behin betiko itxitura jartzea gero. /I.A.

EPAIKETA

Hilketa eta lapurreta egotzi dizkio zinpeko epaimahaiak Aitor Mendikuteri

USOA AGIRRE/IRATI AGIRREAZALDEGI.

Astehenean, Aitor Mendikuteri aurkako epaiketaren seigarren egunean, Arrate Elkororen gorpuari egindako autopsiaren eta Mendikuteri izanaren gainera deklarazioak jaso ziren epaia. Mendikuteri atzemandako labanan aurkitu zen odol aztarna Arrate Elkororena zela baieztatu zuten.

Martitzeneko saioan hilketa-egile dela onartu zuen Aitor

Mendikutek, baina lapurretarik ez zuela egin.

Abokatu bakoitzak bere akusazioak aurkeztu ostean, eguaztenean kaleratu zuen zinpeko epaimahaiak Aitor Mendikuteri aurkako epaia.

Hilketa egotzi dio zinpeko epaimahaiak Mendikuteri. Hilketa hori, gainera, alebosiaz eta krudelkeriaz egin zuela esan dute. Gainera, lapurreta delitua ere leporatu diote.

Hala ere, aringarri bat ezarri

diote epaiari: erasoaren unean Mendikuteri askatasuna partzialki asaldatuta zegoela adierazi dute, eta baita anomalia psikiko arina duela ere.

SENTENTZIA DATORREN ASTEAN

Epaia ikusita fiskalak 20 urteko kartzela zigorra eskatu du hilketagatik eta lau urtekoa lapurretatagatik; 24 urteko kartzela zigorra guztira. Akusazio partikularrak eta herri-akusazioak, berriz, 22 urte eta sei hilabeteko kartzela

la zigorra eskatu dute hilketagatik eta lau urte eta sei hilabetekoa lapurretatagatik; 27 urteko kartzela zigorra guztira.

Datorren astean emango du epaileak sententzia eta orduan jakingo da zenbat urteko kartzela zigorra izango duen Aitor Mendikutek.

Aho batez hartu du zinpeko epaimahaiak erabakia. Akusazio partikularren eta herri-akusazioaren abokatuak pozik agertu dira epaiarekin.

KIROLA

PARTIDUAK

ARETO FUTBOLA

Maiatzak 22
15:00: Vicios-Makanaki K. Piperrak
16:00: K. Piperrak-Ariñiketan Makanaki
17:00: Spias-La Kokotxa Ariñiketan

PILOTA

Maiatzak 22 (Debagoieneko txapelketa) Final erdiak
11:30: Juantxu/Unai Uriarte-Javier Isturiz/Ibai Redondo
12:15: Garikoitz Uribarren/Arkaitz Lizarralde-Igor Oruesagasti/Joseba Larrañaga

EMAITZAK

ARETO FUTBOLA

La Kokotxa 1 - K. Piperrak 7
Ariñiketan 6 - Txapela 1
Vicios 3 - Spias 3

Patxi Taberna

• Bokata goxoak • Plater konbinatuak
• Espezialitatea: Tripakiak

Salbador, 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

Jesus Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19
**KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Asentzio eguna
San Migelen,
1957 urte aldera

Asentzio eguna ospatu zuten atzo, eguena, Aritzetako San Migel ermitan. Goizean meza izan zen eta mezaren ondoren mokadutxo hartu zuten han bildutako herritarrek. Gaur egun ez da oso ohikoa San Migel ermitan meza entzutea; hain zuzen ere, urtean bitan bakarrik egoten da meza: Asentzio egunean eta San Migel egunean. Edozelan ere, domekan, maiatzaren 23an, Asentzio eguna ospatzeko meza egongo da berriz ere, goizeko hamaiketant. Zubiaurre eta Martokoko jaiak ospatzen direnez, hara joateko igoera antolatu dute, 10:30ean hasita, Lasa eta Txarrantxa jatetxeen ondotik.

Garai baten San Migel ermitan biltzen zen jendetzaren lekuko duzue aste honetako erretratu zaharra. Ermitaren ondian dagoen Aritzeta baserriko Margarita Mujikak emandako informazioaren arabera, argazkia 1957-60 urte bitartekoa izan daiteke. Antza denez, Ramon Labor da bergarar apaizak esaten zuen meza sasoi hartan, eta, horrez gain, jolasak, bertsoak eta bestelako ekitaldiak izaten ziren ermita ondoko zelaian. Argazkian ikusten denez, herritar ugari joaten ziren orduan San Migelera, adin guztietakoak gainera. Ziur ezagun mordera topatuko dituzuela erretratuan.

Argazkia: Margarita Mujika



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75IRRINTZI
kafetegiaIrala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62REMENTERIA
AltzariakEgongelak
Logelak
Aukera guztiak
EnkarguanArtekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29UREDERRA
ITURGINTZAIturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
SalmentaArruriaga 11
686 943 918Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitriloak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

disdira

ile apaindegia
edertze gelaMasterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintzaOstalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunakSan Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

BONOFOTOA



Ze kaletan daude farola hauek eta ze jauregitik gertu?

BERGARAROSPETSUAK

Telesforo Monzon (1)

KOLDO PÈREIRA

Idazle, politikari eta buruzagi abertzalea Olaso dorretxean jaio zen 1904ko abenduaren 1ean. Zuzenbide ikasketak egin zituen Madrilan; ez zituen bukatu, ordea, eta EAJko kide egin zen 1930ean alderdia berriro elkartu zenean. Alderdi horretako zinegotzi aukeratu zuten II. Errepublikari bide eman zioten 1931ko udal hauteskunde historikoe-tan. Euskal Herriko lehen estatutua prestatzeko prozesuan, Bergarako Udalak, besteak beste, Eusko Ikas-kuntzaren estatutuari egin beharreko zuzenketa erlijiosoa eta hamar urtekoak proposatzea lortu zuen. Zuzenketa horien bidez, Lizarrako estatutu konfesionala sortu zen.

Gorteetako diputatu aukeratu zuten bi legegintzalditan. Bere ibil-bide errepublikarra ezagutzeko, aski dugu jendaurreko ekitaldietara jo. EAJko Euskadi Buru Batzarreko kide izan zen. 1936an Agirre lehendakariak Eusko Jaurlaritzako Gobernazio ministro izendatu zuen. Ardura hori zuela, Ertzaintza izeneko polizia sortu zuen; ordena zaintzeko eta gerrako beharrei erantzuteko lagun-garri izan zen, hain zuzen ere.

*Jose Antonio Agirre
lehendakariak
Gobernazio ministro
izendatu zuen 1936an*



ROMAN LARRAÑAGA (BUA)

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|--|---|
| <p>1.
Zein izen jarri zioten garuko Kateari Bergaran, orain dela 25 urte?</p> <p>A/ Eman.
B/ Legaia.
C/ Elbarri-Lan.</p> | <p>2.
Fran Iturbe gitarra joleak talde berri baten dihardu. Zein?</p> <p>A/ Zurrundaie.
B/ Elkano Browning Cream.
C/ The Misfits.</p> | <p>3.
Zein urtetan jaio zen Telesforo Monzon buruzagi abertzalea?</p> <p>A/ 1912an.
B/ 1904an.
C/ 1911n.</p> |
|---|--|---|



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MIREN ZALOÑArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Miren!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Oxirondo** / Galde debalde: **1-C, 2-A, 3-C.**



Super BMn emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzailen artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Vivesoy zukua
Litroko brika

0,95 €

158 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobetagoa den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitetz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 